


Lezoko Unibertsitateko Udala



BEKOERROTA KIROLDEGIA ETA ALTZATE IGERILEKUAK KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALAREN ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen helburua Bekoerrota Kiroldegia eta Altzate Igerilekuak kirol instalazioen (hemendik aurrera BK-AI) kudeaketa integrala da.

Zerbitzu publiko horren kudeaketak, ondorengoa jasotzen du:

- 1.- Kudeaketa zerbitzuak ematea.
- 2.- BK-AIetako kirol zerbitzuen ustiapena.
- 3.- Instalazio horien mantentze-lan integralak, funtzionamendua eta garbiketa.

Kontratua adjudikaziodunaren arrisku eta menturara exekutatu da. Adjudikazioaren hasieran inbentario bat emango da, aurrerago azalduko den baldintzetan.

Aipatutako kudeaketa (ustiapen) lanak, hortaz, honako hauek izango lirateke: zerbitzu eta administrazioa langileak kontratatzea; instalazioak, makinak, altzariak eta tresneria zaindu eta mantentzea; instalazioen garbiketa; harrera eta idazkaritza; kirol instalazioak ustiitzea. BKko harmailetan dagoen tabernaren ustiaketa ez da kontratu honetan jasotzen.


Gastu guztiak adjudikaziodunaren kontura izango dira: pertsonal gastuak, zergak, kontribuzioak eta kontratari dagozkion bestelako gastuak; hala nola, jantziak, tresna espezifikoak, mantentze-lanetarako tresna txikiak eta bestelako materialak; adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du kontratu honen legezko eta kontratuzko obligazioak betetzeko.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira elektrizitate, gasa, telefono, ura, konponketa espezializatu, kanpo mantentze-kontratu eta eraikina mantentzeko gastuak.

Era berean, hari dagokio BK-AI erabiltzeko finkatuko diren diru kopuruak jasotzea erabiltzaileengandik.

Lezoko Udalak Bekoerrota Kiroldegian bulego bat izango du, horren mantenimendu gastuak (garbiketa, elektrizitatea e.a.) enpresa adjudikaziodunaren kargura izanik (telefonoa Udalaren kargura izango da).

Aurreikusten da, kontratu berri hau, 2015 urteko urtarrilaren bian hasiko dela (ez da data finkoa). Udalak jarraipen zuzena egingo du, adjudikazioduna eta aurreko enpresaren artean koordinazio lanak eman daitezen, beharrezkoak diren bilera guztiak antolatuz.



Lezoko Unibertsitateko Udala



2. BEKOERROTA KIROLDEGIA ETA ALTZATE IGERILEKUEN KUDEAKETA INTEGRALA.

Kirol zerbitzuen kudeaketa integrala izango da; beraz, ondoren datorren zerrendaren balioa ez da mugatzailea, zerrendatzailea baizik.

- Kudeaketa ekonomikoa
- Jarduera fisiko eta kirol jardueren zerbitzu programa
- Instalazioetarako sarbideen kontrola
- BK-AI kirol instalazioetako langileriaren kudeaketa
- Instalazioen garbiketa eta mantentze-lan integrala

2.1.- Kudeaketa Ekonomikoa

a.-Enpresa esleipendunak behar adina langile jarri beharko ditu kontratuaren xedea egoki burutzeko, eta beharrezkoak dituen giza baliabide guztiak kontratatuzko askatasuna izango du. Dena den, adjudikaziodunak bermatuko du unibertsitateko goi mailako titulua duen lanaldi osoan jardungo duen pertsona bat kontratatuko duela; pertsona horrek kirol erakundeen kudeatzaile izaera izango du, zentroaren arduradun edo gerentea izango den aldetik. Pertsona hori gainera, parte hartuko du Kirol Instalazioetako Jarraipen batzordean eta Gestio-Batzordean, deituak direnean.

b.-Bermatuko du ere, administraritza lanetan aritzeko profil egokia duen pertsona bat izango duela, edo bestela bermatu beharko du lan horiek burutuko direla, eta zehaztu beharko du horretarako aditua den kanpoko enpresa batek lan horiek egingo dituela proposamenean jasoko delarik.

c.-Era berean, txanda bakoitzean kontrol eta jendearen arretarako langile bat egongo dela bermatuko da, baita sorosle bat ere eta matxurak konpontzeko zerbitzua 24 ordutan eta urteko 365 egunetan, proposatzen den komunikazioa-sistemaren arabera, aukera emango duena, edozein larrialditan, eraikinerako joateko gehienez ordubeteko epean.

d.-Langile guztiek bere eginkizunak garatzeko beharrezko gutxieneko titulazioa izan behar dute.


e.-Edonola ere, adjudikaziodunak kirol zerbitzuak emateko kontratatutako langileen gutxieneko titulazioak indarrean dagoen araudira egokituak izan beharko dute, bereziki alor horretarako legeak gaitasun profesionaleri buruz ezarria duenerako.

f.-Langileak kontratatzerakoan kontuan eduki beharko da Lezoko Udalak finantzaturako eta haren zerbitzurako instalazio bat dela eta, beraz, ahal den heinean herriko edo eskualdeko langileak kontratatzen saiatuko da, betiere emakidunari beharrezko iruditzen zaizkion baldintzak betetzen badituzte.

g.-Baldintza orri hauek ematen dituzten eskubideak ezingo zaizkie bere osotasunean hirugarren pertsonari utzi. Zerbitzu emateren bat azpikontratutako balitz, Lezoko Udalarik



Lezoko Unibertsitateko Udala



jakinarazi beharko litzaioke eta honek uzte hori baimendu beharko luke. Nolanahi ere, Lezoko Udalaren aurrean erantzule, esleipenduna izango da. Ez da onartuko kontratu honen iraupena gainditzen duen azpikontrataziorik egitea.

h.-Enpresa esleipendunak urteko memoria bat egingo du, eta bertan jardute eta mantentze lanak azalduko ditu; gainera ustiaketa plana ere egingo du, bertan gastu eta diru-sarreraren atalak eta tasa berrietarako proposamenak zehaztu beharko direlarik. Aipatutako memoria, denboraz aurkeztu beharko da Jarraipen Batzordean aztertua izan dadin. Honetaz gain, adjudikaziodunak Lezoko Udalari, enpresa independente batek egina, emakidaren xede diren kontuen azterketa aurkeztu beharko dio urtero ere.

2.2.- Jarduera fisiko eta kirol jardueren zerbitzu programa

2.2.1- Kirol jardueren ematea

Adjudikaziodunak egoki ikusten dituen kirol jarduerak antolatu eta garatuko ditu, eta honako konpromisoak hartuko ditu gutxienez:

a.-Zerbitzuaren funtzionamenduaren ardura osoa.

b.-BK-Aletan antolatzen diren jarduera guztien koordinazioa.

c.-Jarduera fisikoen programa prestatzea zerbitzuaren bazkide eta erabiltzaileentzako, herriko sektore guztien beharrei erantzuten ahaleginduz. Bestek beste, kirolean hasteko programak, fitnessa, hirurgarren adina eta urritasuna duten pertsonak (ur ingurunean eta kirol gune eta gela anitz-baliodunetan ematen diren ikastaroak).

d.-Burutzea, gutxienez, lehiaketan aurkeztutako programa proposamena.

e.-Udalak onartu beharko ditu, jarduera programak.

f.-Kirol jarduerak bultzatzeko kanpainak bideratu eta antolatzea, Gipuzkoako eskola kiroleko programan jasotakoak barne (beti ere eta kasu guztietan bete beharko da azken horri dagokion araudia maila guztietan). Eremu hau kontuan izanik, Lezoko Udalarekin elakrlanean, UDA kanpainako jarduerak sustatu eta antolatuko ditu eta igeriketa kanpaina garatuko du ordutegi lektiboan.

g.-Lezoko Udalak onartutako funtzionamendurako barne-erregimeneko araudia (I. eranskina) jarraitu eta betetzea.

h.-Lezoko Udaleko kirol instalazioetako zuzendariarekin harremana eta koordinazioa izan eta gobernu taldearen kirol eta kultur politika errespetatzea.

i.-Lezoko kirol klubek entrenamenduak eta lehiaketak egin ahal izan ditzaten behar den koordinazioa eta kolaborazioa izatea, kudeatutako instalazioei dagozkien modalitateetan.

j.-Elkarlanean arituko da Lezoko Udalarekin eta Oarsoaldeako beste erakundeekin kirol jarduera zabaltzeko egindako ekimen eta kanpainetan.

2.2.2- Sorospena



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo,



2014 OCT. 09

Idazkaririk,

- a.-Sorospen zerbitzuak zorrotz beteko du erabilera kolektiboko jenerlekuetarako indarrean dagoen araudia.
- b.-Sorospen zerbitzua aurrerago deskribatzen diren kirol instalazioak publikoari zabalik dauden orduetan emango da, erabiltzaile mota (klubak, ikastetxeak adb.) edo jarduera mota zein den kontuan hartu gabe.
- c.-Beste zerbaitegatik beharrezkoa bada ere (ekitaldi bereziak edo bestelakoak) zerbitzua eman egin beharko da.
- d.-Enpresa esleipendunak, bermatuko du, egoerak egoera, zerbitzuaren prestazioa finkatutako ordutegian.

2.3.- Instalazioetarako sarbideen kontrola.

- a.-Adjudikaziodunak emandako zerbitzuak, barne hartuko du erabiltzaileei eman beharreko informazioa eta harrera lana irekiera ordutegi osoan, baita eraikuntza eta instalazio eta bertan eskaintzen diren zerbitzu guztiei dagozkienak ere, zainduko delarik instalazioak behar bezala egotea eta emandako zerbitzuen antolaketa egokia. BK-Alen kudeaketari dagozkion lan administratiboak ere barnean daude, izen-emateak, bazkidetzak, karnetak, alokairuak, sarrerak saltzea besteak beste.
- b.-Lezoko Udalak eskatzen badu, zerbitzu hau beharrezkoa aurreikusten den beste ordutegietan emango da.
- c.-Izaera pertsonaleko datuak dituen edozein informazio erabili, komunikatu eta uzterakoan esleipendunak une oro alor horretan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, zehazki Datu Pertsonalen babeserako abenduaren 12ko 15/1999 lege Organikoan ezarritakoa, eta era berean ekainaren 11ko 994/1999 EDak onartutako Datu Pertsonalak dituen fitxategi automatizatuetako Segurtasun Neurrien araudia.
- d.-Kontratuko prestazioa amaitu ondoren, esleipendunak erakunde titularrari erabilitako datu pertsonalak emango dizkio.

2.4.- BK-AI kirol instalazioetako langilearen kudeaketa.

- a.-BK-Aiko langileei, lurraldean indarrean dagoen Lan Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko zaie; hau ez balego eta berria onartu bitartean, indarrean egon den azken udal kirol instalazioetako langileentzako hitzarmena aintzat hartuko da eta zehazki aurreko emakida amaitu zeneko unean langileek zuten baldintzak aplikatu (II. eranskina).
- b.-Subrogaziopeko langileak (III. eranskina).
- c.-Erabiltzaileek argi ikusiko dute instalazioetako langileak bertako langileak direla, eta horretarako esleipendunak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu; langile guztiei jantzi eta segurtasunerako material egokiak emango dizkie, indarrean dauden araudien arabera, eta guztia behar adina aldiz berrituko da, itxura beti egokia izan dadin eta segurtasuna kaltetua ez suertatzeko.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo,

2014 UZT. 09

Aldazkariak,

2.5.- Instalazioen garbiketa eta mantentze-lan integrala.

Adjudikazioduna izango da azpiegitura, eraikin, instalazio, altzari eta kirol ekipamenduen funtzionamendu, erabilera eta mantenimendu txukun eta egokiaren erantzulea, garbi eta egoera osasungarrian mantenduko dituelarik.

a.-Egin beharreko lanak hauek izango dira gutxienez:

- Zorua eskobatu eta garbitzea.
- Kirol zoladuren garbiketa.
- Altzari eta tresnei hautsa kentzea.
- Komunak eta aldagelak garbitu eta desinfektatzea.
- Komunetako azulejoak sakon garbitzea.
- Kristal, leiho eta manparak garbitzea.
- Barruko fatxada eta kanpoko kristalak garbitzea.
- Egitura eta barruko azalerak garbitzea.
- Igerilekuko hondartzak garbitzea.
- Aletako ur ontzien garbiketa eta desinfekzioa.
- Eraikinen kanpoko fatxadak eta atxikitako kanpoko inguruak garbitzea (terrazak, kiroldegiko sarrera, Alko berdegunea...)

b.-Esleipendunak, bere jarduera hasi baino lehen, garbiketa plana luzatuko dio Lezoko Udalari (lehiaketan aurkezten duenaz gain) non errutinak, aldizkakotasunak eta garbiketa moduak, desinfekzioa, arratoi eta intsektu-garbiketa jasoko diren aurretik aipatutako guneguztietan.

c.-Esleipendunaren kontura izango da zerbitzua emateko behar diren makina, tresna eta produktuak erostea.

d.-Zerbitzuak eta ohiko jarduerak sortutako zaborra gaika bilduko da, udalerrian ezarrita dagoen zabor bilketa sistemaren arabera.

e.-Lezoko Udalak zerbitzu bereziak eskatzerik izango du 24 orduko epearekin. Zerbitzu hauek langile karga berezia suposatzen duenean esleipendunak fakturatzerik izango du.

Mantentze-lanei dagokionez, adjudikaziodunak gutxienez honakoa burutuko du:

f.-Erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak ezartzeko indarrean dagoen araudia aplikatzea.

g.-Uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretua aplikatzea, alegia Legiolenosi gaitza prebenitu eta kontrolatzeko higiene eta sanitate arloko irizpideak.

h.-Indarrean dauden bete beharreko araudiek ezarritako legezko mantenimendu lanak.

i.-Egingo diren lanak instalazioei buruzko araudietan deskribatutakoak izango dira, bai prebentzio izaerakoak, eta bai nahitaezko izaera duten aldiro egiten diren azterketak.

j.-Enpresa esleipendunak industria erregistroak emandako egiaztagiriak izan beharko ditu, edo bestela akreditutako enpresekin lan egin beharko du. Datu hau eskaintzan islatu beharra dago.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo,

2014 UZT. 09

Idazkariak,

k.-Kontratua indarrean dagoen bitartean ezarri beharreko egeari aldaketaren bat baldin badago, hain zuzen ere dauden instalazioetan aldaketa parzial edo osoren bat egitera behartzen duena, enpresa esleipendunak idatziz jabetzari instalazioa epeen barruan legezko xedapenera egokitzeko beharrezkoa aldaketak proposatuko dizkio. Aldaketa honek sortzen dituen gastuak jabetzaren kontura joango dira.

l.-Beharrezkoa duten ekipo eta instalazioetan egiten diren legezko mantentze-lan tekniko guztiak agiri tekniko batean zehaztuko dira, eta bertan alderdi horiek guztiak islatuko dira.

m.-Instalazio, makinaria eta kirol instalazioetan dauden osagai guztiak gidatu, zaindu eta kontrolatzea.

n.- Alarmak eta larrialdiak zaintzea eguneko 24 orduetan.

o.-Instalazio berrien exekuzioa eta muntai eta desmuntaiak jabegoak horrela eskatzen duenean.

p.-Eraikuntza guztietan dauden instalazio, makina eta osagai guztien mantentze-lan prebentziozkoak eta zuzentzaileak; horietatik kanpo geldituko dira bakarrik eraikuntzen egiturak.

2.5.1. Prebentziozko mantentze lanak

a.-Aldiro eta era sistematikoan egiten diren lanak, hartarako ezarritako programaren arabera.

b.-Lehiatzen diren enpresek haien eskaintzetan adieraziko dute proposatzen duten prebentziozko mantentze plana zein den, eta zehaztuko dute zein lan egingo dituzten eta zein maiztasunekin egingo diren, eraikuntzetan dauden sistema eta instalazio bakoitzari dagokionez.

c.-Lezoko Udalak enpresa esleipendunari eskainitako plan hori betetzea eskatuko dio.

d.-Prebentzio lanak beharrezko epeetan edo osagai egokiekin ez egiteagatik sortutako edozein matxura enpresa esleipendunak konponduko du batera kargurik sortu gabe Lezoko Udalari, eta kaltetutako osagai guztiak bere kontura joango dira.

2.5.2. Konponketetarako mantentze lanak.

a.-Lan hauek bideratuta daude konpontzeko sistema, instalazio edo osagaiak gaizki dabiltzanean, hondatuta daudenean edo matxurak dituztenean, bai zati batean eta bai osorik.

b.-Lan hau araudi hauen arabera garatuko da:

- Matxuraren garrantziaren eta eteten den denboraren arabera gehienez 24 orduko epea emango da, non eta lana egin ezin bada materialik ez delako, beste gremioren baten laguntza behar delako, edo eraikinaren funtzionamenduak hala eskatzen duelako.
- Esleipendunaren kontura joango da eskulana eta ordezkatu beharreko materiala.

24/00619

zenbakia duen DEKRETOZ

2014(e)ko ...ren 9.(e)an onartua.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo

2014 U.T.T. 09

Idazkariak,

2.5.3. Makinen ordezeko piezak eta neurketarako ekipoak

a.-Erabiliko den materiala esleipendunak jarriko du, alegia instalazioetako ekipoetan hondatutako material eta piezen ordezekoak.

b.-Esleipendunaren kontura joango dira aldatutako instalazioak berritzeko, obra berriak egiteko, instalazioak araudira egokitzeko eta kontratua sinatu aurretik zeuden hausturak konpontzeko piezen hornidura eta instalazioa; dena den, Lezoko Udalaren kontura joango da materialen kostu ekonomikoa.

c.-Enpresa esleipendunak egitarau bat egingo du, eta bertan jasoko ditu gutxienezko stock-a eta biltegia izan beharreko osagai bakoitzaren kopuruak.

d.-Material guztiak gutxienez instalatutakoen parekideak izango dira kalitate eta ezaugarrien aldetik.

e.-Arrazoitua egonik, marka edo modelo aldatu behar badira, instalatu aurretik esleipendunak Lezoko Udalaren onespena eskatuko du.

f.-Esleipendunaren kontura joango da kiroldegiko lokaletan izatea kontratuaren xede diren funtzio guztiak egoki betetzeko makinaria, lanabesak, tresnak, neurtzeko aparailuak eta beharrezko gainontzeko baliabide osagarri guztiak.

2.5.4. Sistema eta instalazioetan egindako aldaketa eta handitze lanak.

a.-Alor ezberdinetako legedi aldaketagatik sistema eta instalazioetan egin beharreko aldaketa eta handitze lanen berri eman beharko dio esleipendunak Lezoko Udalari, legeak aurreikusitako epeen barruan, eta behar adinako aurrerapenarekin, bestela esleipenduna izango da horren ondoriozko isun, erantzukizun edo zehapenen erantzulea.

b.-Esleipendunak jakiten duenean instalazioen jarduna hobe lezaketen konponketak egin ditzakeela, Lezoko Udalari ahalik eta azkarren atal honetan adierazitako aldaketak nahiz handitze lan horiek proposatuko dizkio, baita kontratuaren xedearekin zerikusia duen beste edozein ere; Lezoko Udalak oniritzia eman beharko dio, eta gainera sortutako gastuak ordaindu beharko ditu.

2.5.5. Kontrol eta ikusketa lanak.

a.-Esleipendunak mantentze lanei buruzko liburu bat bete eta eguneratua izan beharko du, eta bertan azalduko ditu egindako mantentze lan guztiak.

b.-Esleipendunak, kontratua esleitzen denetik bi hilabeteko epean kirol instalazioetan dauden ekipo eta makinariaren inbentarioa egingo du, eta zenbakitu egingo ditu, jabeagoak eman dionarekin alderatuz. Ondoren inbentarioa bere ongi-emanarekin Lezoko Udalari emango dio.

c.-Lege arauetara egokitu behar diren lanak homologatutako langileek egingo dituzte, eta araudiek exijitzen dituzten baimen eta egiaztatari ofizialekin. Beharrezkoa bada, dagozkion liburu ofizialak ere beteko dira, eta bertan ikuskaritzetatik ondorioztatzen diren oharrak idatziko dira.



Lezoko Unibertsitateko Udala



Lezo,

2014 UZT. 09

Idazkariak,

d.-Esleipendunaren kontura izango da zerbitzua emateko behar diren makina, tresna eta produktuak erostea.

e.-Adjudikaziodunak indarrean dagoen legea bete behar du; eta zehazki lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa eta Gipuzkoako lan hitzarmen sektoriala.

f.-Esleipendunaren ardura izango da langileei beren lanerako egokiak diren arropa eta oinetakoak ematea.

2.5.6. Instalazioei buruzkoak.

a.-Aurreko atalean aipatu bezala, Lezoko Udalak IV eranskinean jasotzen den ekipamendua utziko du adjudikaziodunaren eskuetan.

b.-Kontratua iraungirik, utzitako instalazioak eta ekipamendua (emakidaren hasieran inbentarioan jasoak) Lezoko Udalari entregatuko zaizkio kontserbazio ezin hobean eta haietariko bakoitzaren xedeko erabilpenerako egokiro, denboran egin daitezkeen ekipamendu hobekuntzak eta/edo berrikuntzak barne.

c.-Zerbitzu prestazioarekin hasi baino lehen, adjudikaziodunak ikuskatu ahal izango ditu instalazioak eta ekipamendua, haien egoerarekin eta haien bete beharreko helbururako egokitasunarekin adostasuna espreski adierazi beharko duelarik, hauteman ditzakeen gabezia guztiak azaldu ahal izango dituelarik, horrela, instalazioak eta ekipamendua zerbitzuan jarri aurretik, gabezia horien erantzuleek behar diren zuzenketak egin ditzaten.

d.-Azpiegitura, eraikin, instalazio, altzari eta kirol ekipamenduen funtzionamendu eta mantentze lan txukun eta egokiaren erantzule bakarra adjudikazioduna izango da.

e.-Ekipamendua eta bertako instalazio eta makinerien mantentze lana, indarrean dagoen legedia aplikatuz eta egin beharreko ikuskapenak barne, adjudikaziodunaren kargu izango dira.

2.5.7. Materiala

Adjudikaziodunak, BK-AI instalazioen gestioa egiterakoan, beharrezkoa iruditzen zaion eta Lezoko Udalak jarri ez duen materialaren gastu guztiak bere gain hartuko ditu.

3. BK-AI INSTALAZIOEN URTEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA.

a.-Gutxieneko irekiera egutegi eta ordutegia honakoa izango da:

- BEKOERROTA KIROLDEGIA:

NEGUA:

- ▲ Asteleheneratik ostiralera: 8:15tik 21:45ra.
- ▲ Larunbatak: 8:30tik 14:00ra eta 16:30tik 20:00ra (partida federatuak jokatzetik egongo da 21:30 arte).
- ▲ Igandeak eta jai egunak: 9:00tik 13:30ra.

UDARA:



Lezoko Unibertsitateko Udala



- ▲ Astelehenetik ostiralera: 9:00tik 21:00ra.
- ▲ Larunbatak: 9:00tik 13:30ra.
- ▲ Igandeak eta jai egunak: itxita.

- ALTZATE IGERILEKUAK:

NEGUA:

- ▲ Astelehenetik ostiralera: 7:30tik 21:30ra.
- ▲ Larunbatak: 8:30tik 14:00ra eta 17:00tik 20:00ra.
- ▲ Igandeak eta jai egunak: 9:30tik 13:30ra.

UDARA:

- ▲ Astelehenetik ostiralera: 8:15tik 21:00ra.
- ▲ Larunbatak: 10:30tik 20:00ra.
- ▲ Igandeak eta jai egunak: 10:30tik 20:00ra.

b.-Uda sasoia BKn uztaila eta abuztua hilabeteek osatzen dute (urtero aplikazio eguna alda daiteke hilabete hasieraren aste barruko kokapenaren arabera) eta Aletan ekainaren erdialdetik (15an modu orokor batean) irailaren erdialdera iraungo du udako sasoia (urtero aplikazio eguna alda daiteke data horren aste barruko kokapenaren arabera). Beste data guztiak neguko sasoiari dagozkie.

c.-Bekoerrota Kiroldegia gehienez ere hogeita bat egun isteko aukera egongo da abuztuan, mantentze-lanak egin ahal izateko.

d.-Altzate Igerilekuak gehienez ere hogeita bat egun isteko aukera egongo da irailean, mantentze-lanak egin ahal izateko.

e.-Kirol instalazioak gehienez honako jai egunetan isteko aukera egongo da:

- Bekoerrota kiroldegia eta Altzate igerilekuak: urtarrilak 1, urtarrilak 6, maiatzak 1, irailak 14, azaroak 1 eta abenduak 25.
- Bekoerrota kiroldegia: ostegun santua, ostiral santua, Gipuzkoako jai eguna eta erkidegoko jai eguna.
- Abenduaren 24 eta 31 ordu-tegi berezia izango dute instalazioek, gehienez ere 15:00tan itxiko dutelarik.

f.-Urteko egutegia adjudikaziodunarekin adostu eta finkatuko da urteko azken hiru-hilabetea baino lehen.

g.-Lezoko Udalak egutegia zein ordu-tegia aldatzeko ahalmena izango du.

4. NAHITAEZKO ERRESERBAK.

Adjudikaziodunak nahitaez honakoak erreserbatu beharko ditu:

a.-Hala eskatzen duten Lezoko udalerriko ikastetxeek gorputz hezkuntzako klaseak emateko astelehenetik ostiralera ordu-tegi lektiboan (eskaera hau ikasturte hasieran egingo da; aurreikusi gabeko jardueren edo data finkorik gabeko kasuetan eskaera hamabost eguneko epearekin egingo da):



014/00619 zenbakia duen DEKRETOZ
20.14 (e)ko irailaren 9 (e)an onartua.

00 00 00

00 00 00

Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo,
2014 UZT. 09
dazkariak,



- Pista balioanitza.
- Kirolddegiko frontoia.
- Bi kale igerileku handian edo ikasketa ontziko zati bat.
- Gorputz Hezkuntzako klaseetan erabilia izan daitezken beste espazioak.
- erreserba horietan ikasleak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea.

b.-Eskola Kirola programa garatzeko astelehenetik ostiralera 16:30tik 20:00ra saioetarako eta larunbata goizak txapelketa eta topaketetarako, irailaren 15tik ekainaren 15era:

- Pista balioanitza.
- Kirolddegiko frontoia.
- Bi kale igerileku handian edo ikasketa ontziko zati bat, herriko ikastetxeen igeriketa kanpainarako.
- Eskola kiroleko programa garatzeko erabilia izan daitezken beste espazioak.
- Erreserba horietan partaideak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea.

c.-Lezoko kirol klub edo kirol elkarte eta eskualde izaera duten Oarsoaldeko kirol klubentzako bere jarduera nagusia aurrera eramateko astelehenetik ostiralera 19:00tik 21:30ra saioetarako eta larunbata arratsalde eta igande goizak txapelketetarako eskatu eta Udalak onartzen duen egun eta maiztasunekin:

- Pista balioanitza.
- Kirolddegiko frontoia.
- Kaleak igerileku handian (aukeren arabera) edo ikasketa ontziko zati bat.
- Une puntaletan erabiliak izan daitezken beste espazioak.
- Erreserba horietan partaideak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea.

d.-Lezoko Udalak baldintza-orri honen xede diren instalazioak erabili ahal izango ditu, kirol jarduerak egiteko, UDA kanpainarako, kultur jarduerak egiteko etab. Horretarako, adjudikaziodunari jakinaraziko dio, aldez aurretik (ahal izanik hamabost egun lehenago), instalazioak eta zerbitzuak erabiliko dituela, egunak eta orduak zehaztuz.

e.-Udalak eskubidea izango du sarrera kobratzeko berak antolatzen dituen jardueretan.

f.-Goian aipatutako erreserba horiek Lezoko Udalak, Lezoko ikastetxe edo klubak egiten dituztenean, ez dute inolako gasturik sortuko ez Udalarentzat ez aipatutako beste entitateentzat, jarduerak sor ditzaken pertsonal gaingastuak salbu.

g.-Zerrendatutako erreserba guztiak udalaren ongi-emana beharko dute eta esleipendunari jakinaraziko zaizkio.


h.-Adjudikaziodunak erabiltzaileei jakinarazi beharko die, bazkietza kontratua sinatzerakoan, baldintza batzuk alda daitezkeela, Udalak interes publikoaren izenean hala erabakitzen badu.

i.-Adjudikaziodunak, bestalde, aukera izango du kirol izaerako jarduerak antolatzeko, aldez aurretik Lezoko Udalarai baimena eskatuta.

j.-Nolanahi ere, ulertzen da erreserbak instalazio bakoitzari dagozkion kirol jardueretarako egiten direla, Udalak egindako erreserben kasuan izan ezik.



Lezoko Unibertsitateko Udala



k.-Finkaturiko nahitaezko erreserba horietan hutsunerik suertaturiko zerbitzu adjudikaziodunak erabili ahal izango ditu egoki iruditzen zaion eran aurretik Lezoko Udalar jakinaraziz.

5. INSTALAZIOETARA SARRERA.

a.-BK-Aletara sarrera libre izango da herritar guztientzat, zerbitzu bakoitzerako markatutako prezioa ordaindu beharra muga bakarra izango delarik, edota haien edukiera eta izaera propioa.

b.-Nahitaezkoa izango da, prezio bat finkatzea instalazioa noizbehinka eta puntualki erabiltzeko (ordenantzetan hutsunea egongo balitz), aukera hori izateko abonatu izatea edo antzekorik eskatu ezin izango delarik.

c.-Udaleko Osoko Bilkurak urtero onartuko dituen tasa, prezio eta hobariak aplikatuko dira. Adjudikaziodunak, ondoren kirol instalazioetako jarraipen batzordean adostu beharko den, proposamena egingo du. Adostasuna ez balitz lortuko, Osoko Bilkurak onartutakoak aplikatuko lirateke.

d.-Lehiakideek bere proposamena landu dezaten 2014 urteko BK-AI erabilerarako ordenantza atxikitzen da (V. eranskina). Beste prezio eta kontzeptu proposamena aurkez dezakete lehiakideek; egokia dela ikusten bada, aintzat hartuko da eta hobekuntza bezala kontuan hartuko da lehian.

e.-Udal ordenantzetan jasoa dagoen bezala, hobarien atalean, zerbitzuaren prestazioan eskola kirolak lehentasuna izango du, bere kuota zero izango delarik.

f.-Harreran ikusgai honakoa azaldu beharko da:


- BK-AIen erabilera ordutegia.
- Zerbitzuen prezioa.
- Egiten eta egingo diren zerbitzu eta programak.
- Erreklamazio liburua eskuragarri dagoela.
- Iradokizun kutxa dagoela.

6. HIZKUNTZ BETE BEHARRAK


EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokion arlo guztietan, bai ahoz bai idatziz, Lezoko Udalak D13/1144 (Hizkuntz Irizpideak) dekretuan jaso ziren irizpideak beteko dira. (VI.eranskina)

6.1.- Hizkuntza gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.



Lezoko Unibertsitateko Udala



Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Ondorioz, lanpostu bakoitzaren funtzioaren baitan ezarritako hizkuntza eskakizunak egiaztatu beharko dira

KATEGORIA	FUNTZIOA	HIZKUNTZ ESKAKIZUNA
Gerentea	Izaera publikoa	HE 3
Harrerako langilea	Jendaurrekoa	HE 2
Soroslea	Jendaurrekoa	HE 2
Begiralea	Jendaurrekoa	HE 2
Mantentze-lanetako langileak	Berezia	HE 1
Garbiketako langileak	Berezia	HE 1

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, 2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatzeko aldera.


6.2.- Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.

Kanpainak, mezu publizitarioak eta antzekoak gutxienez euskaraz kaleratuko dira. Leloak eta kanpaina ezberdinen muina sortzen denean bi hizkuntzen ezaugarriak kontuan hartuko dira. Hau honela, kontratazio eta komunikazio kanpainen lehiaketa publikoetan ezinbestekoa izango da mezuak bi hizkuntzatan sortuak izatea, hau da, ez da onartuko hizkuntz batetan sorturiko mezuen itzulpenak.



Lezoko Unibertsitateko Udala



Lezo,

2014 UZT. 09

Idazkariak,

6.3.- Erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

6.4.- Erabilera administrazioarekin

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

7. BATZORDEAK.


7.1.- Jarraipen Batzordea

a.-BK-AI kirol instalazioen jarraipen batzorde bat osatuko da, maila orokorrean baldintza orri hauen betetzea ziurtatzeko, eta zehazki besteen artean honakoak aztertu eta onartzeko:

- Hurrengo ikasturteko/urteko kudeaketa plana.
- Hurrengo ikasturteko/urteko jardueren programa.
- Hurrengo ikasturte/urteko mantentze-lan eta garbiketa plana.
- Segurtasun eta larrialdi planak
- Hurrengo urteko prezio proposamena
- Hurrengo ikasturte/urteko aurrekontu eta dagokion eranskinen proposamena.
- Hurrengo ikasturte/urteko egutegi eta ordutegi proposamena.
- Aurreko ikasturte/urteko memoria (plan guztiak jasotzen dituena).
- Aurreko urteko likidazioa.
- Inbentarioa
- Dagokionean kontu ikuskatuak

b.-Aipaturiko funtzioak betetzeko, Batzordea nahitaez bitan bilduko da urtean ohiko deialdian. Bi bilera horien garaia ustiatzailearekin adostuko dira, urte/ikasturte lan egiteko moduarekin bateragarri izan daitezzen.

c.-Batzordea beharrezkoa den guztietan bilduko da ezohiko moduan, Lehendakariak, kideen erdiak edota kudeaketa batzordeak horrela proposatzen dutenean.



Lezoko Unibertsitateko Udala



Idazkariak,

d.-Batzordea ahalduna izango da, bertan aurkeztutako proposamen, kontu eta memoriak onartzeko edo ez.

e.-Jarraipen batzordeak, ustiatzaileari erabiltzaileen artean asebetetze inkesta bat egitea eskatzeko aukera izango du beharrezkoa aurreikusten badu.

f.-BK-AI kirol instalazioetako Jarraipen Batzordea honako pertsonak osatuko dute:

- Lezoko Alkatea (Batzordeko Lehendakari lanak egingo ditu).
- Kirola kudeatzen duen saileko zinegotzi delegatua.
- Lezoko udaleko idazkaria.
- Lezoko udaleko kontu-hartzailea.
- Lezoko udaleko kirol instalazioetako zuzendaria (idazkari funtzioak beteko ditu).
- Entitate ustiatzailearen hiru ordezkari (instalazioetako zuzendaria horietako bat izango delarik).

7.2.- Kudeaketa Batzordea

a.-Instalazioen kudeaketaren etengabeko jarraipena egiteko osatuko da. Batzorde hau, gehienez ere, bi hilabetero bilduko da. Jarraipen Batzordean onartutako planak hemen aztertu, zehaztu eta martxan jarriko dira; baita erabiltzaileen edo beste entitateen aldetik etorri daitezkeen proposamen eta kezak aztertu eta bideratu.

b.-BK-AI kirol instalazioetako Kudeaketa Batzordea honako pertsonak osatuko dute:

- Entitate ustiatzailearen ordezkari bat.
- Lezoko udaleko kirol instalazioetako zuzendaria (idazkari gisa arituko da).
- Egokia iruditzen denean, Lezoko udal gobernuaren ordezkari bat.

8. BALDINTZA OROKORRAK.

Adjudikazioduna, kudeaketaren titularra den aldetik honakoa bete beharko du:

a.-Azpiegituren, instalazioen eta kirol ekipamenduen erabilera egokia, instalazioak garbi eta osasun-egoera onetan mantenduz, baldintza teknikoen orriaren arabera.


b.-Instalazioaren jabetza eta bertan ematen diren zerbitzuen izaera publikoa da; hau honela, antolatzen den edozein jardueren zabalkundearen entitate kudeatzaileak jabego publikoa azpimarratuko du.

c.-Zerbitzu karta bat idaztea, bai Lezoko Udalarentzat eta bai instalazioaren erabiltzaileentzat; bertan ekipamendu ezberdinen konponketa epe, erreklamazioen kudeaketa eta zerbitzuari buruzko ardurei buruzko konpromisoak jasoko dira.

d.-Ustiatzailearen ardura izango da, 5. ataleko f barruan aipatutakoaz gain, BK-AI kirol instalazioetan eskaintzen diren zerbitzuen, prezioen, baldintzen eta abarren berri zabaltzea, gutxienez urtean behin.



Lezoko Unibertsitateko Udala



e.-Adjudikaziodunak errespetatu egin beharko ditu Udalak seinatzen dizkion konfort-parametroak instalazio ezberdinetako tenperatura eta hezetasun maileri, baita ur bero sanitario eta girelekuetako tenperaturei dagokionez.

f.-Industria, Barne, Osasun edo beste edozein sailerako eskakizunak betetzea homologazio, dokumentazio eta planen burutze, galdara aretoen liburu eta egun eta etorkizunean eska daiteken beste edozein betebeharreri dagokionean.

g.-Udalak instalazioak ikuskatzerik izango du unez-uneko egoera ezagutzeko.

h.-Ustiatzaileak ezingo du inolako obrarik egin ezta ekipamendurik aldatu ere, Lezoko Udalaren berriazko baimenik gabe; ezta bere esku jarritakoa besterendu edo zergapetu.

i.-Erantzukizun zibileko 600.000 euroko aseguru-poliza bat formalizatzea, higiezin egoera eta okupaziotik, zerbitzuen funtzionamendutik eta jardueraren garapenetik eratorritako hirugarrenen kalteetarako.

j.-Zerbitzua ematen hasi baino lehen aseguru polizaren kopia aurkeztu beharko da udaletxean.

k.-BK-Aletan publizitaterako eremuak egon ahal izango dira (Udalak onartu beharko ditu). Instalazioetan egingo den publizitateak Lezoko Udalaren baimena eduki beharko du, berrmatuz honela, udalaren konpromisoak eta indarrean dagoen araudia betetzen direla.

l.-Publizitate honek sortarazitako diru-sarrerak esplotazioarenak izango dira, Lezoko Udalaren ekitaldi eta konpromisoak, partida federatuak eta ekintza puntualak salbu non kontratatutako publizitate espezifikoa antolatzailearentzako izango diren.

Adjudikaziodunak emakidaren eperako bakarrik kontratatu ahal izango du publizitatea.

